**LABURPENA**

**Prentsaurrekoa Gazara laguntza humanitarioa helarazteko egoerari buruz**

***Ekainaren 6an, ostegunean, 12:00etan, Donostiako Udal prentsa aretoan**, Gernika Palestina / Yala Nafarroa diru bilketaren bideratze Jarraipen Batzordeak agerraldia egin du Gazara laguntza humanitarioa helarazteko prozesuaren berri emateko eta egun dauden zailtasunak jakinarazteko. Halaber, ekainaren 8an Bilbon eta Iruñean egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko deialdia berretsi da.*

*Hizlariak*

*•Nekane Balluerka (Euskal Herriko Unibertsitateko errektore ohia)*

*•Jone Bilbao (MunduBat/GernikaPalestina).*

*Agerraldian hauek ere egon dira:*

- *Ioritz Iglesias (ELA)*
- *Txente Rekondo (LAB).*
- *Arkaitz Anzizar (CCOO)*

***Hitzak: (euskaraz eta gaztelaniaz)***

***<u>NEKANE BALLUERKA</u>***

*Gaurko agerraldian, jasotako diru ekarpenen banaketari jarraipena egiteko, batzordeak datuak eskainiko ditu, Jone Bilbaoren eskutik, Gernika-Palestina eta Yalaren izenean.*

*Arlo juridikoaren aldetik, egun eskaini dezakegun informazioa zera hau da:*

- *Netanyahuren aurkako prozesu guztiak zabalik daude. Jakingo duzuenez, Palestinatik bertatik bultzatzen ari den kereila bultzatzen ari gara hemendik eta arlo horretan ez dago nobedaderik, baina begi onez ikusten dugu Nazioarteko Gorte Penalak emandako urrats guztiak.*

- *Halaber, aukera dago Egiptora hurrengo asteetan bidaiatuko duen delegazioan parte hartzeko.*

- *Urrian arlo juridikoari buruzko jardunaldi batzuk egiteko asmoa daukagu.*

- *Ia plano berean, segurtasun juridikoarekin lotuta, kezka handiz ikusten dugu UNRWAren egoera, eta gure babesa adierazi nahi diegu bertan dauden elkarte humanitario guztiei.*

*Las informaciones que nos llegan hablan de que la UNRWA está al límite de su capacidad:*

- *Riesgo por los ataques al personal humanitario y de Naciones Unidas.*
- *Criminalización por parte de Israel, lo que unido a lo anterior acrecienta el peligro de que la impunidad de Israel sea aun mayor.*

- *La mayoría de los países han restituido la aportación económica, pero no EEUU, por lo que existe un impacto en la Palestina ocupada, así como en la atención que se presta en Libia, Jordania y Siria a las personas palestinas refugiadas.*

*Azken finean, argi dagoena da ahalegin guztiak gutxi direla eta nazioarteko presioa mobilizazioan oinarritzen dela batik bat, horregatik garrantzi handikoak dira ekainaren 8an Bilbon eta Iruñean egingo diren mobilizazioak.*

***JONE BILBAO***

*Orain, azalduko dizuegu zeintzuk izan diren joan den abendutik martxan dugun Elkartasun Aktiboa kanpainaren bidez orain arte lortu ditugun ekarpenak eta horiek nola iristen ari diren Gazara, laguntza humanitariorako hainbat produktu eta ekintzaren bitartez.*

*Momentu honetan, 23.569,16 €ko funtsa dugu Gernika-Palestinaren bizum kontuaren bidez helarazitakoak, eta 47.566,93 € Yala Nafarroaren bidez. Hau da, **guztira, 71.136€ daukagu banatzeke.***

*Azpimarratu nahi dugu jada Euskal Herriko 16 udaletxek egin dutela beren ekarpena, eta eredu bilakatu direla gainontzeko tokiko gobernuak ere Palestinar herriaren aldeko defentsa aktiboa egiten has daitezen.*

*Zelan kudeatzen ari gara diru hori? ¿Cómo estamos gestionando y haciendo llegar el dinero recaudado hasta el momento?*

***El primer envío** lo hicimos en abril. Fue un envío de **35.000€** a cada una de las dos organizaciones de base que tienen un trabajo activo ahora mismo en Gaza:*

***Por un lado, la Union of Agricultural Work Committees UAWC**, una organización no gubernamental de agricultoras que lleva trabajando desde 1986 en Cisjordania y Gaza, impulsando el desarrollo de tierras agrícolas, implementando intervenciones hídricas, promoviendo la formación de agricultoras y medios de vida para mujeres rurales.*

***Por otro lado, la Union of Palestinian Women Committees, UPWC****, constituida en 1980 como una organización progresista de mujeres de base, parte activa del movimiento de mujeres palestinas, en particular, y del movimiento por la lucha nacional, en general, que trabaja para contribuir en avanzar hacia la autonomía de las mujeres palestinas y mejorar su situación en la sociedad para conseguir la equidad real entre hombres y mujeres. En los últimos años ha desarrollado trabajo con gran impacto en apoyo psicosocial con las mujeres viudas y niñez.*

*Queremos señalar aquí las dificultades que hemos tenido para hacer llegar el dinero a las compañeras de la organización de mujeres UPWC. El banco nos bloqueó la transferencia y tuvimos que volver a realizarla. Ya está, por tanto, realizado el envío y esperamos que pronto comience a dar sus frutos en Gaza.*

***Bigarren bidalketari dagokionean, hau maiatzean egin dogu, 35.000€koa izan da, UAWC nekazal erakundeari zuzendua.***

*Beraiekin kontaktuan gaude eta kontatu ahal izan digute Gazan momentu honetan pairatzen ari diren egoera larriari buruz eta baita bidalitako diruari ematen ari diren erabileraren inguruan:*

*Momentu honetan, 40.000 pertsonatik gora hil edota desagerrarazi ditu Israeleko Estatu Sionista genozidak. Zaurituak 70.000tik gora dira. Gazako azpiegiturak erabat suntsituak izaten ari dira: 70.000 etxebizitza unitate erabat birrinduak, eta 290.000 partzialki kaltetuak izan dira. Gainera, giza eskubide, hezkuntza eta osasun zerbitzuari lotutako instalazioak, eta 400etik*

*gora instituzio eraikin gogorki hondatu dituzte. Horien artean, UAWCren bulegoa eta sukurtsalak.*

*2 millones de personas, en torno al 85% de la población gazatí, se han visto forzadas a desplazarse y la mayoría ahora están residiendo en refugios hacinados, sin los recursos y servicios más básicos. Las mujeres y, especialmente, las mujeres rurales, son quienes asumen principalmente el rol de cuidadoras, por lo que, en esta situación de crisis extrema, sufren de forma desproporcionada los impactos del desplazamiento forzoso. Son sobreexpuestas al empobrecimiento severo, a crisis sanitarias, mientras que las desigualdades vinculadas al género impiden su acceso a recursos de recuperación y a la participación.*

*La hambruna es otra cuestión verdaderamente grave que debe encender todas las alarmas a nivel internacional: la población de Gaza, de poco más de 2 millones de habitantes, constituye en este momento el grupo más grande de personas en el mundo que se enfrentan al hambre.*

*De momento, os podemos compartir estos primeros datos acerca de la ayuda repartida a través de la UAWC:*

*-Se han distribuido 500 metros cúbicos de agua potable a comunidades desplazadas.*

*-Se han distribuido también 400 paquetes de alimento seco, 400 cestas de vegetales, para 400 familias.*

*Para ello, la UAWC ha adquirido paquetes de agua y alimentos y los ha distribuido por toda la zona sur de la Franja de Gaza.*

*La mayoría de las beneficiarios están siendo familias desplazadas en la zona de Rafah, que de otro modo no habrían podido obtener acceso a agua potable ni a paquetes de alimentos para garantizar la ingesta nutritiva de sus hijas e hijos. La selección de beneficiarias se ha realizado basándose en criterios de privación, tamaño de la familia, hogar encabezado por una mujer, acceso a la ayuda y acceso de la UAWC al grupo objetivo. Además de los repartos, se han planificado e implementado actividades para garantizar la dignidad de las destinatarias.*

*La UAWC ha trabajado a través de proveedores locales, en colaboración con su comité local en Rafah y los comités de refugios públicos, para garantizar una adquisición rápida y una entrega sin problemas en circunstancias difíciles. Las compañeras de UAWC nos cuentan que han trabajado bajo estrictas reglas para el proceso de adquisición, comparando varias ofertas de precios para garantizar que se obtuviera la mejor relación calidad-precio.*

***Behin diru testuinguruaren eta diru laguntzaren inguruko datu zehatzak emanda, azpimarratu nahi dogu**, Gazara helarazitako laguntza ezinezkoa izango litzatekeela, kanpaina abiarazi genuen momentutik bertatik sortu zen elkartasun eta konpromiso olde handiagatik ez balitz.*

*Olatu horrek, handitzen eta sendotzen jarraitzen du, Euskal Herriko txoko guztietatik, kolore eta ardatz*

*ideologiko anitzdun sindikatuak, partidu politikoak, gizarte zibileko erakundeak, ikasle mugimendu eta unibertsitateko partaideak, gremioetako eragileak, kultura eta kirol arloko pertsonaiak, udal gobernuak eta bestelako talde eta herritarrak atxikitzen zaizkion heinean. Elkartasun Aktiboak erakutsi digu, zein puntutaraino gai garen, ezberdintasunen gainetik, zubi-lana egiteko, gizatasuna eta eskubide oinarrizkoenak jokoan daudenean.*

*Prentsaurreko hau bukatu nahi dugu, berriz ere, ekainaren 8ko mobilizaziorako deiadar eginez. Europar Hauteskundeen bezperako egunean, Europa konplizea izan ez dadin ozen oihukatu nahi dugu. Euskal Herriko herritarrei eskatzen diegu bertaratu daitezen, Bilbora eta Iruñara, denok batera Europari eska diezaiogun Israel genozidioa amaitzera bultzatzeko betebeharra duela, bere esku dauden hartu beharreko neurri ekonomiko eta komertzial guztiak hartuz, su-etena, inpunitatearen amaiera, bakea eta palestinar herriaren autodeterminazio eskubidea bermatu daitezen.*

**Gernika-Palestina Deialdi Herritarra**